

ERABAKIA, 2018KO IRAILAREN 19KOA, GERENTEARENA, ADMINISTRARIEN ESKALAKO LAN-POLTSA HANDITZEKO PROZESUKO HAUTAKETA-PROBETAKO EPAIMAHAIKO EPAIMAHAIAREN IDAZKARIA PARTE EZ HARTZEKO ALEGAZIOA ONETSI ETA BESTE EPAIMAHAIKIDE BAT IZENDATZEN DUENA.

AURREKARIAK

Lehenengoa.- 2018ko apirilaren 26ko Erabakiaren bidez, "ADMINISTRARIEN ESKALA" izeneko lan-poltsa handitzeko hautaketa prozesuan onartuak eta baztertuak izan ziren hautagaien behin betiko zerrenda onartu zen.

Bigarrena.- 2018k uztailaren 24ko erabakiaren bidez hautaketa-prozesua zuzentzeko epaimahaia osatzen duten kideak izendatu ziren.

Hirugarrena.- 2018ko uztailaren 26an Idazkariak azaldu zuen onartuen zerrendan bere senide bat zegoela eta ahaidetasun gradua Azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/ 1992 Legearen 28. artikuluan aipatzen diren prozeduran parte ez hartzeko arrazoen artean dagoela.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Bakarra.- Artikulu honetako hurrengo paragrafoan aipaturiko egoeraren batean dauden administrazioetako agintari edo langileek ez dute prozeduran parte hartuko, eta horren berri emango diote beren nagusi hurrenari, bidezkoa dena ebatz dezan. Aipatutako egoeren artean b) atala aipatzen du: laugarren maila arteko odol-ahaidetasuna edo bigarren maila arteko ezkontza-ahaidetasuna izatea interesdunetako edozeinekin.

Beraz, aurrean azaldutako guztia aintzat hartuta,

ERABAKI DUT

Lehenengoa.- "ADMINISTRARIEN ESKALA" izeneko lan-poltsa handitzeko Epaimahaiburuen parte ez hartzeko alegazioa onestea.

Bigarrena.- Epaimahaiaren osaera berria izendatzea ondoan agertzen den bezala:

	Titularra	Ordezkoa
Presidentea:	Begoña Palacios Arnaiz	Ana Belén San Martín Azofra
Mahaikidea:	Itziar Galarza Peña	Iñaki Ortego García
Idazkaria:	María Zarza Basabe	María Carmen Aguirre Irisarri

Hirugarrena.- Ebazpen hau argitaratzea deialdiko 6. oinarrian azaltzen diren lekuetan.

Leioan, 2018ko irailaren 19an

Miren Lorea Bilbao Arteché
GERENTEA

